*Erref. FMR / Legelari aholkularia*

JON ETXEBARRIA ORUE JAUNAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HAU

ZIURTATZEN DU:

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak 2016ko martxoaren 17an eginiko bilera arruntean (1/16 akta) honako erabaki hau hartu du, besteak beste:

9. gaia.- Leioako laguntza-zentroan erizainaren lanpostua eta gainbegiralearen plaza sortzea.

«*Lehenengoa*.- 2056 –Leioa laguntza-zentroko gainbegiralea (txandakakoa)– lanpostuaren 008. dotazioa sortzea eta, era berean, 2000530-069 –osasun-laguntzaile teknikoa– plaza sortzea; biak lotzea eta 1110211 –Leioa laguntza-zentroko Osasuna Zaintzeko eta Mendekotasuna Arintzeko Zerbitzuak– organikoari atxikitzea. Sorrerak Gobernu Batzordean onetsi eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

*Bigarrena*.- Goiko sorrerek ez dakarte berekin gastu-igoerarik, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2016rako Aurrekontu Orokorren Foru Arauan jasotzen diren baldintzak betez. Honi erantsitako justifikazio-memoria ekonomikoa da horren oinarri.

*Hirugarrena*.- Goian aipatutako lanpostuan baldintzak eta betekizunak hari dagokion eranskinean daude zehaztuta.

*Laugarrena*.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. eta 89. artikuluak betetzeko, aurreko txostenak erabaki honen arrazoitzea dira, eta hari eransten zaizkio.

*Ref.- FMR / Letrado Asesor*

D. JON ETXEBARRIA ORUE, SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL DE BIZKAIA.

CERTIFICA:

Que la Junta de Gobierno del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia, en su reunión ordinaria de fecha 17 de marzo de 2016, Acta nº 1/16 aprobó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Asunto 9º.- Creación plaza enfermero/a y puesto Supervisor/a C. A. Leioa.

«*Primero*.- Creación de la dotación 008 del puesto 2056 –Supervisor/a Centro Asistencial Leioa con Turnicidad–, y creación al mismo tiempo de la plaza 2000530-069 –Ayudante/a Técnico/a Sanitario/a–, procediendo a relacionarlas y adscribiéndolas en el orgánico 1110211 –Servicios de Salud y Apoyo a la Dependencia del centro Asistencial Leioa–. La fecha de efectos de la misma será la del día siguiente a su aprobación en Junta de Gobierno.

*Segundo*.- Las creaciones referidas no conllevan incremento de gasto en cumplimiento de las determinaciones contenidas en la Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2016. Sirva de base la memoria económica justificativa que se adjunta.

*Tercero*.- Las condiciones y requisitos de desempeño del nuevo puesto se describen en el correspondiente anexo.

*Cuarto*.- A los efectos previstos en los artículos 54 y 89 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, sirve de motivación al presente Acuerdo los informes que anteceden y se incorporan al mismo.

gufe ifas — BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

*Bosgarrena.-* Erabaki honen berri ematea Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari, Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari, Leioa laguntza-zentroko zuzendariari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko buruari. Horrez gainera, erabaki hau iragarki-oholean, erakundearen web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman da. Aurrekoa bete bedi».

Hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko eta aktan erabakiko denaren zain, hau egiten dut, Bilbon, bi mila eta hamaseiko martxoaren hogeita hiruan.

*Quinto*.- Comunicar el presente Acuerdo al Jefe de Departamento de Servicios Generales, al Jefe de División de Servicios Sociosanitarios y para las Personas Mayores, al Director del C. A. Leioa y al Jefe del Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas; así como disponer su adecuada publicación en el Tablón de Anuncios, Página Web del Instituto y Boletín Oficial de Bizkaia. Cumpliméntese».

Y para que así conste, en cumplimiento de lo acordado, y a reserva de los términos que resulten de la aprobación del Acta correspondiente, expido la presente en Bilbao, a veintitrés de marzo de dos mil dieciséis.

GERENTEA / EL GERENTE

Sin./Fdo.: Jon Etxebarria Orue